



SABIN ARANA ETA ONOMASTIKAREN HIZKUNTZA- PAISAIA¹

1. EGUNGO EGOERA

Alazne, Andere, Andoni, Bingen, Gaizka, Gotzon, Gotzone, Iñaki, Iker, Joseba, Josebe, Jon, Jone, Josu, Josune, Kepa, Koldobika, Miren... izenak nonahi entzuten dira euskaldunen ahoetan, bai eta euskaraz ez dakitenen ahoetan ere. Gainera, izen horietako batzuk euskal herrietatik kanpoko erdal herrietan ere entzuten dira.

Datu soziologiko batekin hasiko gara: EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundeak) emandako azken datuen arabera, neskato jaioberrietan gehien ipini

diren hiru izenak Ane, Laia eta June izan dira, hurrenkera horretan. Lehenengoa, gehien erabiltzen dena, Sabin Aranak eman zuen *Egutegi Bizkat'á*ean, bigarrena Bizkaiko Galdamesko herriko auzo eta Bizkaiko mendi batena da, eta hirugarrena XII. mendean Iruñean ageri den izena da, egun Irungo Juncal Andre Mariaren balokide gisa erabiltzen dena.

Beste datu soziologiko bat, EUSTA-Ten arabera hau ere: mutiko jaioberrietan gehien ipini diren izenak Markel, Jon eta Julen izan dira. Hirurak Sabin Aranak sortutakoak.

1 Saiakera honetarako erabilitako lanak:

1) *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin (Sabino de Arana-Goiri)*, 3 liburuki, 2. argitaraldia, Sendoa argitaraldia, Donostia, 1980.

2) *DEUN-IXENDEGI EUSKOTARÁ edo deunen ixenak euzkeratuta ta ixentzat ezañten diran jayetako ixenan euzkerazko ikuñpenak ARANA-GOIRI'TAR SABIN'AK asmaubak Egutegi Bizkat'árentzat Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxañte bategaz Euzko-Alderdi Jeltzaliá'ren Euzkera'ren Bizkaí-Batzañ Ordia'k argiratuta — Santoral Vasco ó sea lista de nombres euzkerizados de los santos y traducción de los nombres de festividad aplicables como nombres propios adaptados por Sabino de Arana y Goiri para Egutegi Bizkat'á con un prólogo de Luis de Eleizalde, publicado por la Comisión Bizkaina de Euzkera del Partido Nacionalista Vasco, Bilbo, 1910.*

<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/10327#&gid=1&pid=5>



2. IZENEN SORBURUA

2.1. EGUTEGI BIZKAĀA

1896ko azaroaren 7an Sabin Aranak 1897ko *Egutegi bizkat'āa* argitaratu zuenean, ez dakit berak buruan erabili zuen zelango eragina izango zuen lan hark euskal herrietan bezala Euskal Herriatik kanpora ere.

Sabin Aranaren lan honek, alde batetik, balio izan zuen Sabin Aranak harrezkero erabiliko zuen ortografia finkatzeko. Bestetik, berriz, bataio-izenak euskaraz emateak eragina izan du bera hil ondorengo belaunaldi guztietan. Izan ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak 1910ean argitaratu zuen Koldo Eleizalde jeltzale eta (1918az gero) euskaltzainak idatzitako *Deun-ixendegi euzkotaāa*. Lan horretan argi ageri da Sabin Aranak hil ostean izan zuen eragina.

Egutegi bizkat'āa badu garai hartan indarrean zegoen santutegiko izenez besterik. Adibidez, Joanes Leizarragak 1571ko *Kalendreran* (euskaraz inprimatutako lehenengo egutegian) egin zuen legez, Sabin Aranak jakingarri batzuk ematen dizkigu, barbarako, badakigu *Egutegi bizkat'āa* argitaratu zenean 5.880 urte pasatuak zirela Jaungoikoak mundua (“gaudia”) sortu zuenetik. Hori ez ezik, beste zertzelada interesgarri batzuk dakartzatza: euskal herrialdeen izenak, inguruabar geografikoak eta berak egutegi horretarako erabilitako berba berriak (besteak beste, zodiakoaren izenak).

Harira etorritz, bada, esan dezagun *Egutegi bizkat'āa*ren sarreran (*Irakuñliari*

egñiāak), honela dioela Sabin Aranak: “Ona geure Bizkai matian euskeraz argñara urteten dan lenengo egutegija”. Kasu honetan Sabin Arana erratu egin zen, berak argitaratutako euskal egunkaria ez zelako Bizkaiko lehenengoa izan, 1815. urtean Jose Paulo Ulibarri Galindez okondarrak Bilbon argitaratu zuelako lehenengo euskal egutegia.

Sabin Aranak *Egutegi bizkat'āa* idazlanean idatzitako beste berba batzuk ekarri behar ditugu hizpidera, kontura gaitezen haren asmoa ez zela frantsesetik edo espainieratik izenak euskaratzea, ezpada berak izenak haien “jaiotza”n (jatorrizko hizkuntzan) jasotzen ditu eta hortik euskaratu.

Berak dioenez, frantsesez hitz egiten duenak frantsesez dauka izena, espainieraz edo gaztelaniaz egiten duenak espainieraz dauka izena, edozein herriko gizon-emakumeen izenak euren idazkerakoak dira... Orduan, berak itauntzen du ea zergatik ez daukagun guk euskarazko izenik, ea geure hizkera, euskara zahar eta ederra, ez ote den gizakumeen hizkera, eta ea geu, bizkaitarrok eta euskaldun guztiok, ez ote garen Jaungoikoaren seme-alabak eta zerurako deituak, beste andre-gizonak legetxe.

Lehen aipatu dudan gisa, Sabin Aranak badirau esaten ezen izenak euskaratzeko haiek “euren jaiotzan” hartu dituela. Eta azaltzen du zein den izenok euskaratzeko erabili duen modua; horrela, José izena barik, *Joseph* hartzen du oinarri eta hortik *Joseba* ateratzen du. Gauza bera egiten du *Koldobika* izenarekin (Luis da Hlodovich [*Ghlodobik*] izenetik hartua) eta *Kepa* izenarekin (*Cephas* [*Kefas*]



SABIN ARANA ETA ONOMASTIKAREN HIZKUNTZA-PAISAIA

izenetik hartua). Esan dezagun, bide batez, hiru izen horiek direla Sabin Aranak asmatutakoetatik arrakastarik handiena lortu dutenetakoak.

Jarraian, gizonezkoen izenak eta andrazkoenak egiteko arau hau ematen digu: andrazkoen izenak e-z amaitzen dira, gizonezkoen izenak era batzuetan amaitzen dira (*a, i, l, n, r, s* letrez), baina ez e letraz.

Ondorik, Sabin Aranak badiosku *Josu* izen deuna *Jheossuany* izenetik datorrela, eta *Miren* izena *Miriametik*. Eta badirau esaten horiek direla gure Jau-naren eta haren Ama deunaren izenak. Berak onartzen du *Miren* izena ez dela e-z azkentzen, baina hala uztea erabaki du, Andre Mariaren izena delako. Gizonezkoen izenen amaiera a-z izatea (*Mirena*), eta, andrazkoen izenetatik bereizteko, andrazkoen izenoi *-(n)e* amaiera eranstea proposatzen du; horrela, gizonezkoa *Josu* da, eta andrazkoa, berriz, *Josune*.

Betiere, Sabin Aranak uste zuen euskaratutako izenek euskaldun gutxiren artean izango zutela harrera ona, Bidasoaz honanzko euskaldunen artean batez ere, haren iritzian, Bidasoaren hegoaldeko euskaldun gehienak erdaldunduta zeudelako eta *a* amaierako izenak andrazkoen izenekin lotzen zituztelako. Orduan, gizonezkoen izenetarako *a* amaieraz gainera beste azkentze batzuk proposatu zituen: *-j, -l, -n, -r* eta *-s*.

Dena den, Sabin Arana fundazioak gonbidatuta, "Sabino Arana y el euskera: miscelánea desmitificadora" esan nuen hitzaldian, gizonezkoen izenak *a* amaierarekin markatzeko ohitura ez da Sabin Aranarena; izan ere, Iparraldean gehien

argitaratutako *Ejercicio* izeneko liburuan (1857ko argitaraldian), izen hauek aurki ditzakegu: *Tita, Satira, Salma, Kalista, Sixta, Hipolita, Dominica...* Areago, xviii. eta xix. gizaldietako Iparraldeko idazleetan *Moisa, Dositea* eta *Anselma* gizonezkoen izenak ikusten ditugu. Idazle on artean bestelako amaiera (*n* letraz) duten gizonezkoen izenak topatu ahal ditugu: *Justin, Paulin, Sabin, Seberin...*

Argi dago Sabin Aranak *Egutegi bizkat'ara* argitaratu zuenean ez ziola hutsetik ekin atazari. Askok uste duten baino askozaz gehiago irakurtzen zuen Sabin Aranak bizkaieraz besteko euskalkietan.

Bada, Sabin Aranak orduan arau bat eman zuen, egundaino euskal gizarteko herritarrongan (izan euskaldunak, izan erdaldunak) iraun duena: euskaraz gizonezkoen izenak a-z amaitzen dira, eta andrazkoenak e-z. Badakigu jakin hori ez dela arau bakarra, baina horixe gelditu da arau gisa herriaren gogoan.

Hala ere, Sabin Aranak beste arau batzuk erabili zituen izenak euskaratzeko, betiere euskal fonetikaren legeak kontuan hartuta; horrela, besteak beste, ez dago izenik *r*-z hasten denik (*Errapel*), ez du kontsonante loturik onartzen, eta batzuetan bokala tartekatzen du (*Kauldi*), eta beste batzuetan kendu egiten du kontsonanteetako bat (*Polentzi*); *n* letraren osteko *s*-ak *ts* bihurtzen ditu (*Antselma*)...

Zelan edo hala, egunean baino egunean gehiago entzuten dira euskal izenak erdal herrietan ere. Jakingo ote dute Euskal Herriatik kanpoko herritarrek euren semeei *Iker* eta *Iñaki* izenak ipintzen dizkietenean Sabin Aranari zor dizkiotela euren semeen izenak?



2.2. DEUN-IXENDEGI EUKOTARA

Sabin Arana 1903ko azaroaren 25ean hil zen, eta handik zazpi urtera haren jeltkide izan zen Koldobika Eleizalde idatzitako *Deun-ixendegi euzkotara* Euzko Alderdi Jeltzaleak argitaratu zuen. Zer du argitalpen honek berezi? Alde batetik, 1898ko egutegian gaztelaniazko izenetan ageri diren errakuntzak zuzentzen ditu, eta, bestetik, beste izen batzuk gehitu egiten ditu.

Koldo Eleizalde 1910eko argitalpen honetan badiosku ezen 1897ko egutegia (1896ko azaroaren 7an argitaratutakoa) eta 1898ko hormarako egutegia aztertu dituela, eta horren arabera bada-kigu egutegi horrek jarraipena izan zuela, eta argitzen digu zein izan zen Sabin Aranak erabili zuen obra (*La leyenda de oro*).

Ikus dezagun zeintzuk diren berak gehitutako izenetako batzuk: Agurtza/Agurtzane (Rosario), Aintza/Aintzane (Gloria), Alatz/Alazne (Milagro), Gentza/Gentzane (Paz), Purdentzi/Purdentze (Prudencio/Prudencia).

Gotzon izenari buruz ohar bat egin behar dugu; izan ere, 1896ko argitaraldian ez da izen hori ageri; areago, martxoaren 1eko efemeridean, *Aingeru Zaindaria* ageri da; Koldo Eleizalde, oster, 1910eko argitalpenean ez du berri gisa markatzen; horrek aditzera ematen du 1898ko hormarakoan agertu zela. Gauza bera esan daiteke *Endika* izenaren gainean.

3. SABIN ARANAREN EKARRIAREN JARAUNSLEETAKO BATZUK

Amaitzeko, Sabin Aranak asmatutako izen horietako batzuk hartu dituzten pertsona batzuk ekarriko ditut hona.

Agate. — *Agate Deuna* abestiagatik ezaguna.

Alesander. — *Euskal Onomastikaren Datutegian* (EODAn) *Alexander* ageri da euskara baturako. Izen honen txikigarria askozaz erabiliagoa da ahoz, eta hor ditugu, berbarako, Alex Aranburu txirindulari ezkiotarra eta Alex Sardui abeslari gernikarra.

Ander. — Ander Capa Athleticeko jokalaria portugaletetarra, Ander Iturriotz irakasle eta idazle ordiziarra, eta Ander Manterola antropologo zeanuritarra.

Andima (Antima). — 1910eko *Deun-ixendegi euzkotarak* emandako idazkera nagusitu zen Andima Ibiñagabeitia idazle elantxobetarrari esker, 1897ko egutegian *Antima* agertu zelako.

Andolin. — Andolin Eguskitza idazle eta euskaltzain santurtziarra dakart gogora beren-beregi.

Andoni. — Izen hau askotan entzuten da: Andoni Egaña bertsolari zarautarra, Andoni Iraola Athleticeko jokalaria usurbildarra, Andoni Ortuzar politikari eta EAJko lehendakari sanfuentestarra, eta Andoni Sagarna euskaltzain donostiarra.

Ane. — Neskato jaioberrien artean Euskal Autonomia Erkidegoan gehien jartzen den izen hau dute, adibidez, Ane Bergara futbolari beratarrak, Ane Pikaza



SABIN ARANA
ETA ONOMASTIKAREN
HIZKUNTZA-PAISAIA

antzezle bilbotarrak, Ane Urkiola politikari legazpiarrak...

Balendin.— Sabin Aranak eta Koldo Eleizaldek Balendin Berriotxoaren aipamena dakarte; horrekin batera, eza-gun-ezaguna izan zen Balendin Enbeita bertsolari muxikarra dugu.

Baleren.— Baleren Bakaikoa Ekonomia Aplikatuko katedradun berastegiarra.

Batirtze.— Hor dugu Bizkaiko Laukizko Gaztedi taldeko Batirtze Ispizua.

Batista.— Izen hau eroan zuen Orioko Oliden Tolosa arraunlari handiak.

Bingen.— Izen hau dute, besteak beste, Bingen Ametzaga euskal idazle eta politikari algortarrak, Bingen Mendizabal musika-konpositore gasteiztarrak, eta Eusko Jaurlaritzako Bingen Zupiria sailburu hernaniarrak.

Danel.— Izen honekin ditugu Danel Elezkano pilotari zaratamoztarra, Danel Goikolea bertsolari eta bertsozale arrasatear zendua, eta Danel Zenarrutzabeitia politikari eibartar zendua.

Dunixi.— Izen hau bere horretan onartu du Euskaltzaindiak. Gaztelaniazko *Dionisio* eta frantseseko *Denis* izenen euskal ordaina da. Izen honen sarrera erabiliko dut antzinako kontu bat gomutarazteko. Izan ere, Sabin Aranaren lehenengo egutegitik eta Koldo Eleizalderen izendegitik atzera (eta 1936ko *Gerra Intzibila* arte) izenak euskaraz jartzeko ahalegin handiak egin zituzten euskal herritarrek, baina, Eliza katolikoaren aginduak eta beste inguruabar politiko batzuk izan zirela bide, hori ezin izan zen egin. Orduan, gaztelaniaz bataiatzen zen umea,

baina egunerokoan euskal izenez esaten zitzaion. Horren ale batzuk hona ekartzearren, hor ditugu Dionisio Azkue Arregi idazle eta margolari bergararra (1885ean jaiotakoa), *Dunixi* izenarekin sinatzen zuena, eta gure amaginarreba Miren (San Andres Etxebarrikoan, 1932an *Maria* izenarekin bataiatua).

Ebaista (Ebarista).— Aldaera biak aurkitzen ditugu 1897ko egutegian. Izen hau eroan zuen euskalaririk garrantzitsuena Ebarista Bustintza Lasuen idazle mañariarra, *Kirikiño*, izan zen. Gaur egun euskara baturako *Evaristo* aldaera ezarri da.

Edorta.— Asko dira *Edorta* izena daroaten gizonezkoak: Edorta Ximenez idazle mundakarra, Edorta Kortadi idazle tolosarra...

Eli.— Izen hau daroatenen artean ospetsuena, beharbada, Eli Gallastegi politikari bilbotarra dugu.

Elixabete.— Izen honekin ditugu, besteak beste, Elixabete Garmendia kazetari ormaiztegiarra, Elixabete Pérez Gaztelu euskaltzain urgazle errenteriarra eta Elixabete Piñol politikari bilbotarra.

Genar.— Genar Andrinua Athleticeko jokalaria bilbotarra.

Gontzal.— Gontzal Mendibil abeslari zeanuritarra.

Gorka.— Hor ditugu Gorka Agirre jeltzale zendua, Gorka Iraizoz Athleticeko atezain iruindarra, Gorka Landaburu Parisen jaiotako politikaria eta Gorka Maneiro politikari donostiarra.

Gotzon.— 1897ko egutegian *Aingeru* bakarrik ageri zen, baina harrezkero *Gotzon* ageri da; baditugu Gotzon Aulestia



musikari ondarroarra, Gotzon Aleman euskal poeta eta Gotzon Garate idazle elgoibartarra.

Ibon. — Ibon Areso Bilboko alkatea.

Iñaki. — Asko dira, baina ezagunena Iñaki Anasagasti, Venezuelan jaiotako politikari jeltzalea dugu, eta ezagunak ere badira Iñaki Gaminde euskaltzain urgazle bilbotarra, Iñaki Martínez de Luna euskaltzain urgazle gasteiztarra, Iñaki Oiartzabal PPko politikari gasteiztarra, Iñaki Perurena harri-jasotzaile leizarra... Benetan bada inor Iñakirik ezagutzen ez duenik?

Ixaka. — Ixaka Lopez Mendizabal dugu izen honekin ageri zaigun euskaltzale eta euskalari tolosarra.

Jokin. — Izen honekin ditugu, besteak beste, Jokin Altuna pilotari amezketarra, Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako sailburu tolosarra, eta Jokin Zaitegi idazle eta itzultzaile arrasatearra.

Jon. — Izen honekin ditugu, besteak, Jon Castañares Bilboko alkate zendua, Jon Juaristi idazle bilbotarra, Jon Kortajarena modelo zarauztarra, Jon Lopategi bertsolari muxikarra eta Jon Mirande Parisen jaiotako idazle zuberotar zendua.

Joseba. — Banaka batzuk baino ez ditut aipatuko, izen hau euskal herrietako toki guztietan ezagun baita: Joseba Egibar politikari jeltzale andoaindarra, Joseba Etxeberria Athleticeko jokalaria elgoibartarra, Joseba Rezola politikari jeltzale ordiziar zendua eta Joseba Sarrionandia idazle iurretarra.

Josu. — Izen honetakoak dira, besteak beste, Josu Bergara jeltzale bilbotarra, Josu Erkoreka Eusko Jaurlaritzako sailburu bermeotarra, Joseba Intxausti

euskaltzain urgazle segurarra eta Josu Montalban Zallako politikari sozialista.

Julen. — Julen Guerrero Athleticeko jokalaria portugaletetarra eta Julen Urkiza karmeldar ondarroarra ditugu, besteak beste.

Julene. — Julene Azpeitia euskaltzain urgazle zumaiarrak ezinbestean egon behar zuen zerrenda honetan,

Karmele. — Izen hau dute Karmele Jaio idazle gasteiztarrak eta Karmele Rotaetxe euskal hizkuntzalari bilbotar zendua.

Kepa. — Oso oparoa da izen hau ere: Kepa Altonaga idazle loiutarra, Kepa Aulestia politikari ondarroarra, Kepa Enbeita Rementeria "Urretxindorra" Muxikako bertsolari eta idazle muxikarra, eta Kepa Junkera trikitilari bilbotarra.

Keperin. — Keperin Xemein Lanbarri Abandoko jarraitzaile sabindar sutuak derrigor egon behar zuen hemen.

Koldobika. — Koldo izena daroate, besteak beste, Koldo Eleizalde jeltzale eta euskaltzain bergararrak, Koldo Biguri itzultzaile gasteiztarrak eta Koldo Mitxelena Errenteriko euskaltzainak.

Mikel. — 1897ko egutegian *Mikail* eman bazuen ere, 1898kotik atzera, *Mikel* agertuko da, eta izen hori gailendu. Izen honekin Mikel Laboa abeslari donostiarra, Mikel Zalbide euskaltzain donostiarra eta Mikel Zarate idazle lezamarra topa ditzakegu.

Alazne, Deñe, Edurne, Endika, Garbiñe, Iker, Nekane... eta beste asko dira euskaldunen eta euskaldun ez direnen izenak. Zerrendaren helburua hau da: Sabin Aranak onomastikan izan zuen eta gaur egun ere duen eragina erakustea.

